

Biziraupena itsasoan.

Olagarroak ehizarako gehien erabiltzen duen arma ikusmena da.

Eta nudibrankioak oso nabarmenak dira.

Bizirauteko kolore gehiegi, toxikoak direlako izango ez balitz. Nudibrankioek, defentsa sistema finduaren bidez, jaten dituzten anemona edo belakien osagai toxiko edo erremingarriak gorde eta ostean euren harrapariengana botatzeko erabiltzen dituzte.

Baina olagarroak bestelako asmoak ditu.

Ez da ehizan oso modu aktiboan aritzen den animalia. Arrainen aurrean, ez dauka zer egiterik, jazarri beharrik gabe gelditzen den apurren bati itxarotea salbu.

Eta horretan dabilenean, erraz bihurtzen da harrapakin.

Zefalopodo batentzat, mero batekin topo egitea ez da zorte onaren seinale.

Harrapariak itsas hondoko korritzen dituzte janari bila. Hau da legea.

Eta olagarroak ere men egin behar dio legeari. Ez dago krudeltasunik. Biziraupena besterik ez da.

Harrapakina zuloan gorde eta ez elkarbanatzea da beste arau bat. Sare trofikoak, ezin hobeki doituak daude, materiaren zikloan eta energiaren jarioan oinarritzen dira, hots: jatean eta janari bihurtzean. Baina janaria irabazi egin behar da, edo, txikienez kasuan legez, besteek uzten dituzten apurrei itxaron.

Eremu eta bizitegiei dagokienez, gauza bera gertatzen da. Olagarroak plastiko handi bat lortu eta bizitokizat hartu duenean, ez du elkarlanerako kide beharrik; eremu hau eta bere emea defendatuko ditu, edozeinen kontra, edozein estrategiaz baliatuz. Ez dago meritu, ez irakaspen, ez borondaterik; sena baino ez da.

Litekeena da portaera ikasia ez izatea, inguruneari moldatutako espeziearen perfil genetikoan txertatutakoa baizik: harrapariei ihes egitea, lehiakideak garaitzea eta arrakastaz ehizatzea.

Estrategiak eraginkorrak eta portaerak egokiak direla, espeziearen beraren existentziak frogatzen du. Egokiak ez zirenak, ez daude: Desagertu egin dira, lehiaren presioak eraginda.

Zoriak eta beharrak gidatutako jokoak da berezko hautespena. Baina gizakiak iruzur egiten dio, jokoaren arauak hautsiz. Sare batean harrapaturiko arrain baten gorpuzkinak, hondoetara erortzen. Zorte ona olagarro honentzat, hurbil zebilen zerutik jausitako maná hori aprobetxatzeko. Janaria aurkitu du, esfortzu eta borrokarik gabe. Gaur, zoriari esker, bizirautean du. Beste egun batean, arrain baten beharrak harrapakin bihurtzeko. Legea bete egiten da, beti.